


**Hautes Kontabilitateei buruzko
Irizpena (Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeak 2012ko urriaren 21a)**

**Dictamen sobre Contabilidades
Electoraes (Elecciones al Parlamento
Vasco 21 de octubre de 2012)**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA/ÍNDICE

| | |
|------------------------------------------------------------------------------|----|
| LABURDURAK | 5 |
| SARRERA | 7 |
| I. ONDORIOAK | 10 |
| I.1 Lanaren zabalari mugak | 10 |
| I.2 Legeria betetzea | 10 |
| I.3 Diru-laguntza proposamena | 10 |
| II. DIRU-LAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA | 12 |
| II.1 Hauteskundeetako emaitzak | 12 |
| II.2 Diru-laguntzen aurrerakinak eta jasotzeko dauden diru-laguntzak | 12 |
| II.3 Hautesleei zuzenean eta pertsonalki bidaltzeagatiko diru-laguntza | 13 |
| II.4 Hauteskunde gastuen diru-laguntza | 14 |
| II.5 Gastuen gehienezko muga | 15 |
| III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK | 17 |
| IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK | 19 |
| IV.1 Eusko Alderdi Jeltzalea | 19 |
| IV.2 Euskal Herria Bildu | 20 |
| IV.3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) | 21 |
| IV.4 Alderdi Popularra | 21 |
| IV.5 Unión, Progreso y Democracia | 22 |
| IV.6 Ezker Batua-Berdeak | 23 |
| ALEGAZIOAK | 25 |
| ABREVIATURAS | 29 |
| INTRODUCCIÓN | 31 |
| I. CONCLUSIONES | 34 |
| I.1 Limitaciones al alcance del trabajo | 34 |
| I.2 Cumplimiento de la legislación | 34 |
| I.3 Propuesta de subvención | 34 |
| II. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS | 36 |
| II.1 Resultados electorales | 36 |
| II.2 Adelantos de subvenciones y subvenciones pendientes de recibir | 36 |
| II.3 Subvención por envío directo y personal a los electores | 37 |
| II.4 Subvención gastos electorales | 38 |
| II.5 Límite máximo de gastos | 39 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| | | |
|------|-------------------------------------------------------------|----|
| III. | DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES | 41 |
| IV. | CUENTAS ELECTORALES..... | 43 |
| IV.1 | Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco | 43 |
| IV.2 | Euskal Herria Bildu | 44 |
| IV.3 | Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE)..... | 45 |
| IV.4 | Partido Popular | 45 |
| IV.5 | Unión Progreso y Democracia | 46 |
| IV.6 | Ezker Batua-Berdeak | 47 |
| | ALEGACIONES | 49 |

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 21a

Vitoria-Gasteiz, 21 de marzo de 2013



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

| | |
|-----------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| EHAA | Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria |
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa |
| EAEHB | Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea |
| HBN | Hauteskunde Batzorde Nagusia |
| LOREG | 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzkoa |
| ELHL | 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundera buruzkoa. |
| TVCP/HKEE | Herri-Kontuen Euskal Epaitegia |





SARRERA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 149.3 artikulua arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskunderen kontabilitateari eta horietan jasotako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko irizpen arrazoitua eman behar du.

Lanaren mamia, indarreko araudiari jarraiki, joan den 2012ko urriaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoen hauteskunde-kontuak egiaztatzea izan da; hona hemen aztergai izan ditugun alderdiak:

- 1.-** ELHLren 140. artikulua hauteskunde sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moduaz zehazten dituen baldintzak bete direla.
- 2.-** Irekitako edo gaitutako banku kontuak, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeari jakinarazitakoak (aurrerantzean AEHB), hautagaitzek diru-funtsak biltzeko eta hauteskunde gastuak ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzea, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluek ezartzen dituzten berezitasunekin.
- 3.-** Aurrez egindako hauteskunde gastuak ordaintzeko irekitako kontuetako saldoen erabilera, bozketa ostean 90 eguneko epean (ELHLren 142.3 artikulua).
- 4.-** Norbanakoei egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakiaren ebidentzia dirua ezartzeko egintzan (ELHLren 143.1 artikulua) eta 145.4 artikulua finkatzen duen 10.000 euroren banakako muga gehiengo errespetatu dela egiaztatzea.
- 5.-** Alderdiak hauteskunde prozesua ordaintzeko emandako diru-baliabideen jatorria (ELHLren 143.3 artikulua).
- 6.-** Hauteskunde-kontu korranteetara ondoko erakunde hauetatik fondoak ekartzeko debekua errespetatzea: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1. artikulua).
- 7.-** Atzerriko erakunde zein pertsonengandik edo Autonomia Erkidegoz kanpoko helbidea dutenengandik edo legezko ez diren jardueretatik eratorritako funtsak ekartzeko debekua errespetatzea (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).
- 8.-** Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zituzten hautagaitzei Eusko Jaurlaritzak emandako hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerapenetan gehiengo muga gordetzea. Aurreratutako kopuruak ezin gaindituko du hautagaitza horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako diru-laguntzaren % 30a (ELHLren 144.2 artikulua).
- 9.-** Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90aren pareko izango da, hala dagokionean, aurreko ataleko aurrerakina murriztuz (ELHLren 144.7 artikulua).

10.- Hauteskunde gastuak egiaz kontratatu direla horretarako gaitutako aldian, hau da, hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatu arteko datara arte, ELHLren 146 artikuluan erabakitakoaren arabera.

11.- ELHLren 147. artikuluari jarraiki legez finkatutako gastuetarako mugak betetzea, zeinak agintzen baitu inongo alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldek ezingo duela ezarritako mugak gaindituko dituzten hauteskunde gastuak egin. Barne Sailburuaren 2012ko irailaren 17ko Aginduak kopuru hori 1.540.745,15 euroan finkatu du, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hauteskunde barrutien multzoan aurkezten direnentzako.

Gainera, ELHLren 151.2 artikulua eta Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 2012ko abuztuaren 30eko Aginduaren arabera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta hauteskunde txartelak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde gastuak euroko 0,23 euroekin lagunduko dira diruz dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. artikulua aurreikusten duen mugaren baitan barne hartua egongo, betiere, atal honek aipagai duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatzen bada.

12.- Egindako gastuen justifikazioa, kontularitza, merkataritza eta zerga printzipio eta arauak agindutako gutxieneko betekizunak gordetzen dituzten agirien bitartez.

13.- Prentsa eta irratian, kartel eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuan egindako gastuen mugak betetzeak, hurrenez hurren, ELHLren 72 eta 75. artikuluek ezarritako mugak gordetzen dituzten.

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- 5/1985 Legea, ekainaren 19koa, Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzkoa
- 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzkoa.
- 6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzkoa.
- Lehendakariaren 12/2012 Dekretua, abuztuaren 27koa, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzen dituena.
- 2012ko abuztuaren 30eko Agindua, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena, 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzen dituena.
- Barne Sailburuaren 2012ko irailaren 17ko Agindua, 2012ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hauteskunde-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak zehazten dituena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen 2012ko urriaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia edo hauteskunde diru-laguntzaren aurrerakina eskuratu duten alderdi politikoak:

| ALDERDI POLITIKOA / HAUTESKUNDE KOALIZIOA | SIGLAK |
|-------------------------------------------------------|---------------|
| Eusko Alderdi Jeltzalea | EAJ-PNV |
| Euskal Herria Bildu | EH Bildu |
| Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) | PSE-EE (PSOE) |
| Alderdi Popularra | PP |
| Unión, Progreso y Democracia | UPyD |
| Ezker Batua-Berdeak | EB-B |

I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEK ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde gasturik ba ote den egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren ere.

I.2 LEGERIA BETETZEA

- Ezker Batua-Berdeak koalizioak hauteskundeetako kontabilitatea ELHLren 149. artikulua ezarritako mugaegunarekiko 19 eguneko atzerapenez aurkeztu du. Berebat, hauteskundeko kontutik 70.000 euroren ordainketa egin da, gastua eta hauteskunde prozesuarekin duen lotura euskarrituko duen fakturarik ez dagoela.
- Alderdi politikoen eskatu ondoren Eusko Jaurlaritzak bigarren aurrerakinaren ordainketa 2013ko urtarrilaren 16an eta 28an egin du; ordea, ELHLren 144. artikulua 7. atalari jarraiki, ordainketa gauzatzeko epea 2013ko urtarrilaren 4an amaitu zen.

I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA

Hauteskunde gastuen diru-laguntza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura egiten da, ELHLren 151.1 artikuluari jarraiki; kopuruak 2012ko abuztuaren 30eko Agindu bitartez gaurkotu dira. Diru-laguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta hauek ere ezingo dute 2012ko irailaren 17ko Aginduak finkatutako gastuen gehieneko muga gainditu.

Irizpide hauen arabera, hona hemen egoki justifikatutako gastuak, zorpetutako eta ordaintzeko dauden diru-laguntzak:

| HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA | | | | euroak |
|----------------------------------------|----------------------------|----------------------------|------------------------------|------------------------------|
| HAUTAGAITZA | Justifikatutako gastuak | Ukatutako Diru-laguntza | Ordaindutako Aurrerakinak | Ordaintzeko diru-laguntza |
| EAJ-PNV | 1.815.753,01 | 1.599.341,62 | 1.449.872,25 | 149.469,37 |
| EH Bildu | 1.251.706,40 | 1.251.706,40 | 1.218.833,12 | 32.873,28 |
| PSE-EE (PSOE) | 1.544.189,46 | 1.148.821,83 | 1.033.930,00 | 114.891,83 |
| PP | 1.894.599,81 | 915.635,12 | 824.076,37 | 91.558,75 |
| UPyD | 153.832,99 | 108.771,95 | - | 108.771,95 |
| EB-B | 33.870,28 | - | 59.005,40 | (59.005,40) |
| GUZTIRA | 6.693.951,95 | 5.024.276,92 | 4.585.717,14 | 438.559,78 |

Zorpetutako diru-laguntzak hautesleei modu zuzenetan eta pertsonalean egindako bidalketari dagokiona ez ezik, gainerako hauteskunde-gastuei dagokiena ere barne hartzen



du, hurrenez hurren, II.3 eta II.4 ataletan zehaztu direnak. Jasotako aurrerakinen xehapenak II.2 atalean barne hartu da.

IV. atalean hauteskundeetako kontabilitateen xehapena barne hartu da, aurkeztutako kontabilitateei egindako doiketak zehazten dituena.



II. DIRU-LAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA

II.1 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Lurralde Historiko bakoitzeko Hauteskunde Batzordeek egindako hautetsiak izendatzeko akten arabera, EAEHBk baitetsitakoa, formazio bakoitzari dagozkion diru-laguntza publikoak zehazteko zenbagarri diren boto eta aulkien kopurua honako hau da:

| HAUTAGAITZA | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | EAE | |
|-----------------------------|----------------|-----------|----------------|-----------|----------------|-----------|------------------|-----------|
| | BOTOAK | AULKIAK | BOTOAK | AULKIAK | BOTOAK | AULKIAK | BOTOAK | AULKIAK |
| EAJ-PNV..... | 40.116 | 7 | 230.204 | 11 | 114.446 | 9 | 384.766 | 27 |
| EH Bildu..... | 34.193 | 6 | 128.644 | 6 | 115.086 | 9 | 277.923 | 21 |
| PSE-EE (PSOE) | 30.358 | 6 | 113.536 | 5 | 68.915 | 5 | 212.809 | 16 |
| PP | 29.374 | 5 | 70.749 | 3 | 30.461 | 2 | 130.584 | 10 |
| UPyD | 5.453 | 1 | 10.855 | 0 | 5.231 | 0 | 21.539 | 1 |
| EB-B..... | 2.488 | 0 | 9.817 | 0 | 5.040 | 0 | 17.345 | 0 |
| Gainerako hautagaitzak..... | 13.019 | 0 | 35.308 | 0 | 18.467 | 0 | 66.794 | 0 |
| GUZTIRA | 155.001 | 25 | 599.113 | 25 | 357.646 | 25 | 1.111.760 | 75 |

Hautesle errolda, hautetsiak izendatzeko aipatutako akten arabera, honako hau izan da:

| | |
|----------------|------------------|
| LURRALDE | ERROLDA |
| HISTORIKOA | GUZTIRA |
| ARABA..... | 250.994 |
| BIZKAIA | 948.422 |
| GIPUZKOA | 575.935 |
| GUZTIRA | 1.775.351 |

II.2 DIRU-LAGUNTZEN AURRERAKINAK ETA JASOTZEKO DAUDEN DIRU-LAGUNTZAK

ELHLren 144 artikularen 2. atalak agintzen du “Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei. Aurreratutako diru kopuruak ezin gaituko du alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-talde berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren % 30a.

Aipatutako ELHLren 144. artikularen 7. atalak agintzen du behin hauteskundeak egin eta EAEHBren aurrean hauteskunde kontabilitatea aurkezteko epea amaitu ondorengo 15 egunetan zehar, Ogasuneko Sail arduradunak administratzaile orokorrei eta bigarren aurrerakin kontzeptuan, hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90ari dagokion kopurua ordainduko diela, kasua



balitz, aurreko atalean aipatutako aurrerakina murriztuz. Aurrerakin hau jasotzeko alderdi politikoek jasotako aurrerakin guztien % 10a egiten duen banku abala aurkeztu behar dute.

Hona hemen 2012ko urriaren 21eko hauteskundeetan ordezkariak edo hauteskunde-aurrerakina eskuratu zuten alderdi politiko bakoitzeko emandako diru-laguntzen aurrerakinak:

| DIRU-LAGUNTZAREN AURRERAKINA | | | euroak |
|------------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|
| HAUTAGAITZA | LEHENENGO | BIGARREN | GUZTIRA |
| | AURRERAKINA | AURRERAKINA | |
| EAJ-PNV | 468.493,10 | 981.379,15 | 1.449.872,25 |
| EH Bildu | 210.361,84 | 1.008.471,28 | 1.218.833,12 |
| PSE-EE (PSOE)..... | 416.479,27 | 617.450,73 | 1.033.930,00 |
| PP | 283.355,40 | 540.720,97 | 824.075,37 |
| UPyD..... | - | - | - |
| EB-B | 59.005,40 | - | 59.005,40 |
| GUZTIRA | 1.437.695,01 | 3.148.022,13 | 4.585.717,14 |

II.3 HAUTESLEEI ZUZENEAN ETA PERTSONALKI BIDALTZEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA

Alderdi politikoek diru-laguntza jasoko dute hautesleei propaganda, gutunazal eta esku-paper edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde gastuengatik (posta bidalketa). Diru-laguntza hautesle bakoitzeko 0,23 eurorena izango da dena delako hautagaitzak aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean, betiere jarduera egiaz gauzatu dela eta ezarritako gastu muga gorde dela justifikatzen bada.

Honi dagokionez, EAEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bileran adierazi zuen hautesletzat hartuko dela hauteskunde propagandaren igorpena egin zaion oro.

Hona hemen hautagaitza bakoitzak gutxienez aulki bat eskuratu duen barrutietan egindako bidalketa zuzenen kopurua eta ezargarria zaien gehiengo diru-laguntza:

| ZUZENEKO IGORPENARI DIRU-LAGUNTZA | | | | euroak |
|-----------------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|---------------------|
| HAUTAGAITZA | DIRUZ LAGUNG. DIREN | GEHIENGO | JUSTIFIKATUTAKO | EZARG. DEN |
| | BIDALKETAK | DIRU-LAG. | GASTUAK | |
| EAJ-PNV | 1.724.660 | 396.671,80 | 421.377,95 | 396.671,80 |
| EH Bildu | 1.718.670 | 395.294,10 | 395.893,96 | 395.294,10 |
| PSE-EE (PSOE)..... | 1.718.670 | 395.294,10 | 395.294,10 | 395.294,10 |
| PP | 1.724.701 | 396.681,23 | 406.343,28 | 396.681,23 |
| UPyD..... | 141.301 | 32.499,23 | 50.455,62 | 32.499,23 |
| EB-B | - | - | 10.209,17 | - |
| GUZTIRA | | 1.616.440,46 | 1.679.574,08 | 1.616.440,46 |

Diruz lagungarri diren bidalketa modura barne hartu dira alderdi politikoek egiaz justifikatu dituzten haiek, EAEHBren 1998ko irailaren 11ko interpretazioaren arabera.

PPko izangai baten gutunaren bidalketa Gasteizko Barrutiko Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurritu da. Baldin eta bidalketa hori hauteskunde-araitegiaren aurkakotzat jotzen bada, justifikatutako gastuak 37.121,30 euroan murriztuko lirateke eta ezargarria zaion diru-laguntza, berriz, 27.459,25 euroan murriztu beharko litzateke.

II.4 HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA

Hauteskunde propaganda bidaltzeagatik diru-laguntzaz gain, gainerako gastuak ere ondoko kopuruekin lagunduko dira eskuratutako boto eta ordezkari kopuruaren arabera, betiere 2012ko abuztuaren 30eko Agindu bidez onetsitako kopuruei jarraiki:

- Hogeita sei mila, zazpiehun eta hirurogei eta bat koma laurogeita bederatzia euro (26.761,89 euro) Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulki bakoitzarengatik.
- Hautagaitza bakoitzak eskuratutako boto bakoitzagatik zero koma laurogeita hamar euro (0,90 euro), betiere gutxienez kideetako batek dagokion hauteskunde barrutian aulkia eskuratu badu.
- Berrogeita lau mila seiehun eta hiru, koma hamahiru euro (44.603,13 euro) hauteskunde barruti bakoitzeko, hauteskunde barrutian gutxienez aulki bat eskuratzen dutenei.

Honi jarraiki, hona hemen alderdi politiko bakoitzak zenbateko diru-laguntza gehienez jasotzeko eskubidea duen:

| HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA GEHIENGOA | | | | Euroak |
|--------------------------------------------------|---------------------|-------------------|-------------------|---------------------|
| HAUTAGAITZA | AULKIAK | BOTOAK | ORDEZKARITZA | GUZTIRA |
| EAI-PNV..... | 722.571,03 | 346.289,40 | 133.809,39 | 1.202.669,82 |
| EH Bildu..... | 561.999,69 | 250.130,70 | 133.809,39 | 945.939,78 |
| PSE-EE (PSOE) | 428.190,24 | 191.528,10 | 133.809,39 | 753.527,73 |
| PP | 267.618,90 | 117.525,60 | 133.809,39 | 518.953,89 |
| UPyD | 26.761,89 | 4.907,70 | 44.603,13 | 76.272,72 |
| EB-B..... | - | - | - | - |
| GUZTIRA | 2.007.141,75 | 910.381,50 | 579.840,69 | 3.497.363,94 |

Diru-laguntza hauek hautagaitza bakoitzak egiaz justifikatutako gastuek mugatzen dituzte eta honenbestez, kobratu beharreko diru-laguntza bi kopuruetan txikiena da, justifikatutako diru-laguntza edo gastua, alegia.



| HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA | | | | Euroak | |
|----------------------------------------|---------------------|--------------------------------|------------------------|------------------------------|---------------------------------|
| HAUTAGAITZA | GASTUAK GUZTIRA | POSTA BIDALK. DIRU-LAGUNTZA | HAUTESKUNDE GASTUAK | HAUTESKUNDE DIRU-LAGUNTZA | EZARGARRIA DEN DIRU-LAGUNTZA |
| EAJ-PNV..... | 1.815.753,01 | 396.671,80 | 1.419.081,21 | | 1.202.669,82 |
| EH Bildu..... | 1.251.706,40 | 395.294,10 | 856.412,30 | | 856.412,30 |
| PSE-EE (PSOE) | 1.544.189,46 | 395.294,10 | 1.148.895,36 | | 753.527,73 |
| PP..... | 1.894.599,81 | 396.681,23 | 1.497.918,58 | | 518.953,89 |
| UPyD | 153.832,99 | 32.499,23 | 121.333,76 | | 76.272,72 |
| EB-B..... | 33.870,28 | - | 33.870,28 | | - |
| GUZTIRA | 6.693.951,95 | 1.616.440,46 | 5.077.511,49 | | 3.407.836,46 |

Aurreko taulan jasotako guztizko gastuak bat datoz alderdiek aurkeztutakoekin eta horiei IV. atalean adierazitako gehitzeko edo murrizteko doiketak ezarri zaizkie.

Zuzen justifikatutako gastu guztietatik propagandaren igorketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztu dira. Modu honetara, gainerako gastuak aurreko taulan zehaztutako jasotzeko kopuru gehienekoarekin alderatzen dira eta kopuruetan txikien den hura laguntzen da diruz.

II.5 GASTUEN GEHIENEZKO MUGA

Hautagaitza EAEn diren hauteskunde barrutietatik bakar batean aurkeztu duten alderdi politikoentzako barrutien araberako hauteskunde gastuek ezingo dituzte ondoko taulan zehaztutako kopuruak gainditu:

| | Euroak |
|---------------|------------|
| ARABA | 340.669,95 |
| BIZKAIA | 694.355,32 |
| GIPUZKOA..... | 505.719,88 |

Aulkiren bat lortu duten alderdi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hauteskunde barrutietan aurkeztu dira eta honenbestez, hauteskunde gastuen muga, posta bidezko bidalketa kontzeptuan diruz lagundutako gastuak murriztu ondoren 1.540.745,15 eurorena izango da.

Alderdi politikoetatik batek ere ez du muga hau gainditu.

Gainera, ELHLren 72. eta 75. artikuluek mugak ezartzen dituzte prentsa-irratian eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuko gastuetarako, hurrenez hurren, aurreko mugekiko % 20 eta % 25ean erreferentziatuz.

Ondoko taulak alderdi politiko bakoitzak gastu kontzeptu hauetan egindako gastuak eta aurkeztu diren barrutiekiko ezargarri zaizkien mugak erakusten ditu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| MUGAK | Euroak | | | |
|--------------------|-----------------------|---------------------|---------------------------|-------------------|
| HAUTAGAITZA | PRENTSA-IRRATIAN MUGA | GASTUAK GASTUA | PUBLIZITATE HESIETAN MUGA | GASTUAK GASTUA |
| EAJ-PNV | 308.149,03 | 300.976,46 | 385.186,29 | 303.237,94 |
| EH Bildu | 308.149,03 | 215.761,69 | 385.186,29 | 40.834,17 |
| PSE-EE (PSOE)..... | 308.149,03 | 280.493,76 | 385.186,29 | 270.331,43 |
| PP | 308.149,03 | 295.427,88 | 385.186,29 | 279.487,58 |
| UPyD..... | 308.149,03 | 1.118,77 | 385.186,29 | 21.770,32 |
| EB-B | 308.149,03 | 9.071,98 | 385.186,29 | - |
| GUZTIRA | | 1.102.850,54 | | 915.661,44 |



III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

1. ELHLren 151.2 artikulua dio “gainera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paperak edo hauteskunde publikitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde gastuak hautesle bakoitzeko 0,23 euroekin laguntzen dira diruz, dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147 artikulua muga barruan egongo”.

Nolanahi dela ere, ELHLren inongo artikulutan ez dira kontzeptu honen izenean egotzi behar diren gastuak zehaztu.

Artikulu honen interpretazioa AEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bilkuran aztertu zuen eta hautesle bakoitzeko diru-laguntza zer den eta gastu horiek nola justifikatu behar diren deskribatu zuen; ordea, ez zuen zein gastu barne har daitezkeen finkatu.

Komenigarria litzateke, berebat, ELHLk aipatzen dituen kontzeptuetan sartzen diren gainerako hauteskunde gastuen izaera garatu eta zehaztea eta bereziki, mugatutako gastuei aipamen egiten dieten haiek: kanpoko publikitatea, prentsa eta irratiari; gainera, gastu horiek arautzean zehaztu egin beharko da informazioaren teknologia berrien erabilerari eman beharko zaion tratamendua (web orriak, aldizkari digitalak...).

Diru-laguntza bati atxikirik dauden gastuak zehatzago arautu behar dira, egungo zehaztugabetasuna saihestu eta zalantzarik ez izateko barne hartzen diren edo ez, legez ezarritako muga egiaztatze orduan.

2. Zenbait alderdi politikok hornitzaile bakar batekin kontratatutako gastuen bolumena izugarri handia dela ikusi dugu. Gastuen tamaina eta honenbestez, jasotako diru-laguntzen aintzat hartuta, komenigarria litzateke alderdi politikoek ekonomikoki eskaintza merkeena hautatuko dutela bermatuko duten sistemak ezartzea, aitortutako gastuen bolumenaren gainean garrantzia erlatiboa duten eragiketei dagokienez, dela banakako kopuruagatik, dela hornitzaile berean metatzeagatik. Prozedura honek agiri bidez egiaztatzea bideratuko duten neurriak barne hartu beharko lituzke.

3. Alderdi politiko ezberdinek hauteskunde kontabilitateak aurkeztean eta euskarri modura jasotzen dituzten ziurtagirietan, datozen deialdietara begira zuzendu beharreko hainbat alderdi ikusi ditugu:

- Gastuak biltzen dituzten kontularitzako kontzeptuak ezberdinak dira batzuetatik besteetara. Komenigarria litzateke gastu kontzeptuak ELHLren 146. artikulua egiten duen sailkapenera egokitzea, propaganda eta publikitateko gastuak prentsa eta irratiaren artean eta propaganda grafikokoak toki publikoetan bereiziz, izan ere, muga espezifikotara mugatuak baitaude, ELHLren 72. eta 75. artikuluei jarraiki.



- Aurkeztutako ordainagirik garbi jaso behar dute gastua zein datetan eta zein kontzepturekin egin den. Zerbitzua edo materialen hornidura gauzatu den data ezberdina bada, ordainagiriak data hau jaso beharko du.
- Gastu txikiak euskarritzen dituen dokumentazioak argi eta garbi zehaztu behar du zein datetan egin diren, nork egin dituen eta zein kontzeptu besarkatzen dituen. Dagozkion ordainketa agiriak aurkeztu behar dira gainera eta bertan bereiziko dira onuraduna eta joan-etorriko bidaiarik egin denean, bidesari , aparkaleku eta abarren ziurtagiriak.



IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik aurkeztuko ditugun hauteskunde kontabilitateak hautagaitzek EAEHBri bidalitakoak dira; bereizirik aurkeztu ez dituzten hautagaitzen kontuetan banakatu egin ditugu publizitatearen bidalketa zuzen eta pertsonaleko gastuak (posta bidalketa) eta berdindu egin ditugu kontzeptuak ELHLren 146. artikulua egiten duen banaketara egokitzearen.

Hauteskunde kontabilitate guztietako diru-sarrerak berdintzearen, hauteskunde emaitzen arabera jasotzeko dagoen diru-laguntza teoriko baten balioespena barne hartu dugu erregistratu ez zuten kontabilitateetan.

Diruz lagungarriak ez diren gastuak eta euskarritu gabeko diru-sarrerak aparteko kontzeptuan jaso ditugu eta dagozkion kontuen ondoren zehaztu dira.

IV.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

| | | Euroak | |
|---------------------------------------------------|---------------------|--------------------------------------|---------------------|
| Bidalketa zuzen eta pers. gast. (posta bidalk.) . | 421.377,95 | Diru-laguntzaren aurrerakina | 1.449.872,25 |
| Publizitatea eta propaganda | 604.214,40 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza | 149.469,37 |
| Alokairuak..... | 96.730,49 | Alderdiaren ekarpena..... | 1.380.000,00 |
| Langileei ordainketak | - | Kontu korrontearen interesak | 6,86 |
| Garraioa eta desplazamenduak | - | | |
| Finantza gastuak | 0,30 | | |
| Beste zenbait..... | 693.429,87 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 1.815.753,01 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 2.979.348,48 |
| Gastu ez subentzionagarriak | 18.353,50 | Justifikatu gabeko sarrerak..... | - |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 1.834.106,51 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 2.979.348,48 |
| Diruzaintza..... | 15.965,64 | Maileguak..... | - |
| Zordunak | 1.130.848,68 | Hartzekodunak | 1.572,35 |
| | 2.980.920,83 | | 2.980.920,83 |

Ez dira diruz lagungarritzat jo ondotik adierazitako gastuak, kontzeptu horiek ez baitaude ELHLren 146. artikulua bereizitakoen artean.

- Mitin batean jarduteko ikuskizunen kontratazioa, 10.829,50 eurorena.
- Aperitibo eta edari gastuak, 7.524 eurorenak.

Ez dugu hornitzaile baten aldetik egiaztapena eskuratu 37.114,99 euroko zenbatekoari dagokionez.



IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

| | | Euroak | |
|---------------------------------------------------|---------------------|-------------------------------------|---------------------|
| Bidalketa zuzen eta pers. gast. (posta bidalk.) . | 395.893,96 | Diru-laguntzaren aurrerakina | 1.218.833,12 |
| Publizitatea eta propaganda | 258.477,53 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza..... | 32.873,28 |
| Alokairuak..... | 60.223,44 | Kontu korrontearen interesak | 4,04 |
| Langileei ordainketak | 14.673,24 | Alderdien ekarpena..... | 870.000,00 |
| Garraioa eta desplazamenduak | 54.720,06 | | |
| Finantza gastuak | - | | |
| Beste zenbait..... | 467.718,17 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 1.251.706,40 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 2.121.710,44 |
| Gastu ez subentzionagarriak | 60.695,60 | Justifikatu gabeko sarrerak..... | 100,00 |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 1.312.402,00 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 2.121.810,44 |
| Diruzaintza..... | 6.788,09 | Hartzekodunak | 238.724,21 |
| Zordunak | 1.041.344,56 | Maileguak..... | - |
| | 2.360.534,65 | | 2.360.534,65 |

Ez dira diruz lagungarritzat jo ondotik adierazitako gastuak:

- Mitinetan jarduteko ikuskizunen kontratazioa, 18.081,03 eurorena.
- Prestakuntza ikastaroak, 15.730 eurorenak.
- Soinu-materiala erostea, 4.734,91 eurorena.
- Informatika materiala alokatzea, 22.149,66 eurorena.

Lehenengo bi kontzeptuak jaso gabe daude ELHLren 146. artikulua bereizten dituen artean eta beste biak, igorritako ordainagirien arabera, hautagaien aldarrikapena egin osteko egunetakoak dira. Gainera, soinu materialeko ondasunen erosketa inbertsioa da eta honenbestez, ezin da diruz lagundu.

Hartzekodunen idazpuruan 238.505,98 euro barne hartu dira 2013ko urtarrilaren 14an ordaindu den ordainagiri bati dagozkionak, ELHLren 142.3 artikulua ezartzen duen epe barruan.



IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

Propagandaren bidalketa zuzen eta pertsonalerako kontabilitate bat aurkeztu du eta bestea, gainerako gastuetarako. Hona hemen horien kontsolidazioa:

| | | Euroak | |
|----------------------------------------------------|---------------------|-------------------------------------|---------------------|
| Bidalketa zuzen eta perts. gast. (posta bidalk.) . | 395.294,10 | Diru-laguntzaren aurrerakina | 1.033.930,00 |
| Publizitatea eta propaganda | 1.048.318,79 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza..... | 114.891,83 |
| Alokairuak..... | - | Alderdiaren ekarpena..... | 1.174.740,69 |
| Langileei ordainketak | - | | |
| Garraioa eta desplazamenduak | 35.802,73 | | |
| Finantza gastuak | - | | |
| Beste zenbait..... | 64.773,84 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 1.544.189,46 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 2.323.562,52 |
| Gastu ez subentzionagarriak | 47.030,50 | Justifikatu gabeko sarrerak..... | - |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 1.591.219,96 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 2.323.562,52 |
| Diruzaintza..... | - | Maileguak..... | - |
| Zordunak | 732.342,56 | Hartzekodunak | - |
| | 2.323.562,52 | | 2.323.562,52 |

Ez dira diruz lagungarritzat jo ondotik adierazitako gastuak:

- Hauteskunde inkestak egitea 37.268 euroren zenbatekoan, izan ere EAEHBk 2012ko azaroaren 18an jaulkitako ebazpenean gastu horiek ez zirela LOREGen 130.b artikuluan jasotako kontzeptuan barne hartzen ondorioztatu zuen.
- Hauteskunde saio batean gosariari zegozkion 9.762,50 euroren gastuak, ELHLren 146. artikulua adierazitako diruz lagungarri ziren kontzeptuetatik bakar bati ere egokitzen ez zitzaiolako.

IV.4 ALDERDI POPULARRA

| | | Euroak | |
|----------------------------------------------------|---------------------|-------------------------------------|---------------------|
| Bidalketa zuzen eta perts. gast. (posta bidalk.) . | 406.343,28 | Diru-laguntzaren aurrerakina | 824.076,37 |
| Publizitatea eta propaganda | 907.798,84 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza..... | 91.558,75 |
| Alokairuak..... | 93.832,10 | Alderdiaren ekarpena..... | 915.485,54 |
| Langileei ordainketak | - | | |
| Garraioa eta desplazamenduak | 73.473,13 | | |
| Finantza gastuak | 7.442,14 | | |
| Beste zenbait..... | 405.710,32 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 1.894.599,81 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 1.831.120,66 |
| Gastu ez subentzionagarriak | 3.506,23 | Justifikatu gabeko sarrerak..... | - |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 1.898.106,04 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 1.831.120,66 |
| Diruzaintza..... | 9.529,89 | Maileguak..... | 699.265,10 |
| Zordunak | 632.279,72 | Hartzekodunak | 9.529,89 |
| | 2.539.915,65 | | 2.539.915,65 |

Ez dira diruz lagungarritzat jo ondotik adierazitako gastuak:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Jasotako maileguaren interesak, zorpetze epea 2013ko apirilaren 19tik areagokoa duena (Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari irizpen hau bidaltzeko mugaeguna), 3.506,23 eurorenak.

Hartzekodunen zenbatekoak alderdiak egindako finantza gastuen aurreikuspena barne hartzen du.

IV.5 UNIÓN, PROGRESO Y DEMOCRACIA

| | | Euroak | |
|---------------------------------------------------|-------------------|-------------------------------------|-------------------|
| Bidalketa zuzen eta pers. gast. (posta bidalk.) . | 50.455,62 | Diru-laguntzaren aurrerakina | - |
| Publizitatea eta propaganda | 53.497,40 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza..... | 108.771,95 |
| Alokairuak..... | 8.773,71 | Alderdiaren ekarpena..... | 154.787,99 |
| Langileei ordainketak | 5.236,15 | Norbanakoen ekarpenak..... | 600,00 |
| Garraioa eta desplazamenduak | 33.089,53 | | |
| Finantza gastuak | - | | |
| Beste zenbait..... | 2.780,58 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 153.832,99 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 264.159,94 |
| Gastu ez subentzionagarriak | 3.540,60 | Justifikatu gabeko sarrerak..... | - |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 157.373,59 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 264.159,94 |
| Diruzaintza..... | - | Hartzekodunak | 1.985,60 |
| Zordunak | 108.771,95 | Maileguak..... | - |
| | 266.145,54 | | 266.145,54 |

Hautagaitza honen kontabilitatean jaso den maileguaren zenbatekoa alderdiaren ekarpentzat jo da, izan ere, ez da hauteskunde kanpaina honetarako eman eta honenbestez, aurkeztutako finantza gastuak, 1.985,60 eurorenak, ez dira onartu ez baitituzte ELHLren 146.g artikulua agindutako baldintzak betetzen.

Berebat, ez da diruz lagungarria den gastutzat hartu bidaiarien autobus garraioko ordainagiri bat, 1.555 eurorena, ez delako ELHLren 146. artikulua jasotzen dituen kontzeptuetara egokitzen.



IV.6 EZKER BATUA-BERDEAK

| | | Euroak | |
|----------------------------------------------------|-------------------|-------------------------------------|-------------------|
| Bidalketa zuzen eta perts. gast. (posta bidalk.) . | 10.209,17 | Diru-laguntzaren aurrerakina | - |
| Publizitatea eta propaganda..... | 9.071,98 | Jasotzeko dagoen diru-laguntza..... | - |
| Alokairuak..... | - | Alderdiaren ekarpena..... | 44.930,00 |
| Langileei ordainketak | - | Finantza sarrerak..... | - |
| Garraioa eta desplazamenduak | 13.536,70 | | |
| Finantza gastuak | 10,55 | | |
| Beste zenbait..... | 1.041,88 | | |
| GASTU SUBENTZIONAGARRIAK | 33.870,28 | JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK | 44.930,00 |
| Gastu ez subentzionagarriak | - | Justifikatu gabeko sarrerak..... | - |
| KONTABILIZATUTAKO GASTUAK | 33.870,28 | KONTABILIZATUTAKO SARRERAK | 44.930,00 |
| Diruzaintza..... | 65,12 | Maileguak..... | - |
| Zordunak | 70.000,00 | Hartzekodunak | 59.005,40 |
| | 103.935,40 | | 103.935,40 |

Hartzekodunen idazpuruak hauteskundeetarako diru-laguntzaren aurrerakinetik egiteko dagoen itzulketa jasotzen du.

Zordunen idazpuruak enpresa bati egindako aurrerakina jasotzen du, dagokion gastua euskarrituko duen ordainagiria jaso ez dela.





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA PSOE-K AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

LEHENENGO.- EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA PSOE, IV.3 idazpuruari dagokionez

“Hauteskunde inkestak egitea 37.268 euroren zenbatekoan” gastua diruz lagungarri ezinezkotzat jotzea, 2012ko azaroaren 18ko HBNren Erabakia oinarri hartuta, adierazi behar da kontabilitate ondorioetarako erabaki hori Hauteskunde Batzorde Nagusiak jada hauteskunde prozedura amaitua zegoela hartu zuela.

Hala da, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen 5/1990 Legearen 146. artikulua agintzen du hauteskunde gastutzat joko direla Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi, federazio, koalizio edo taldeek deialdia egiten den egunetik hautetsiak izendatu arte egiten dituzten gastuak.

Honi dagokionez, gure hauteskunde legeriari eta Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak finkatutako egutegiari berari jarraiki, azaroaren 10a izan zen hautetsiak izendatzeko azken eguna eta kontularitzako ondorioetarako azken data; honenbestez, HBNren ebazpena hauteskundeetan parte hartu genuen hautagaitzek kontularitza itxi eta 8 egunetara ebatzi zen.

Honen arabera, bada, hauteskunde inkesta haiek eragindako gastua, ebazpen hori baino lehenago kontratatu, bete eta ordaindutako zerbitzua da (eta 2012/11/07an kobratutakoa) eta honenbestez, Epaitegi honek gastu hura diruz lagungarritzat jotzen zuen irizpena gerora aldatutakoa da, erreakzionatzeko denborarik ematen ez duena.

Kontua ez da hemen biztanleriaren hainbat sektorek duen boto asmoa ezagutzeko beharra edo ez baloratzen hastea, botoa eskuratzeko publizitate kanpaina diseinatzeari begira - horrek besterik gabe justifikatzen du gastua-, baizik eta agerian uztea erabaki horrek ziurgabetasun juridikoa sortzen diela lehian diren hautagaitzei eta hori konpontzeko modu bakarra dela HBNren erabakia aurrerantzean izango diren hauteskunde prozesuei aplikagarri izatea soilik, hau da, erabaki horren indarraldia kontularitzako ondorioetarako garrantzizko diren datetatik aurrera izatea (hauteskundeak deitzen direnetik hautagaiak izendatzen diren arte). Eta horrekin batera, erabaki hura atzeraeraginez ez ezartzea kontularitzan eta juridikoki jada itxia zegoen prozesuari.

Aurkako erabakiak ziurgabetasuna eragingo luke, esate batera, 2012ko azaroaren 18ko HBNren erabaki hura oinarri hartuta, kontularitzan eta juridikoki jada itxitako hauteskunde prozesuen beste kontabilitate batzuk berraztertetik (2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak...) eratorriko liratekeenak.



BIGARREN.- EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA PSOE, IV.3 idazpuruari dagokionez

Hauteskunde-ekintza batean hamaiketakoari dagokion gastua ez diruz-lagungarritzat jotzeari dagokionez esan behar da gastu hori PSE-EE (PSOE)-ren hautagaitzak egindako mitin jendetsu batean egin zela; izan ere, mitinaren ordutegia aintzat hartuta, egoki iritzi zitzaion bertaratuei picnic poltsatxoak banatzea, hauteskunde propaganda grafikoarekin batera, sandwich bat, fruta ale bat, txokolatina bat eta ur botilatxoa zeramatenak.

Honenbestez, argibide hau eman ondoren, gastu hori Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen 5/1990 Legearen 146.b) artikularen suposamenduan barne har daitekeela ulertzen dugu eta/edo aukeran aipatutako artikulua beraren h) idazpuruan jasotako suposamenduan, Epaitegi honek berak Hauteskunde Kontabilitateei buruzko lehenagoko Irizpenetan ebatzi duen moduan.

Honegatik guztiagatik, nire ordezkartzari dagokionez ESKATZEN DUT bi gastuak Epaitegi honen Irizpenean diruz lagungarri diren gastu modura jaso daitezela; gastu horiei dagozkien ordainagiriak alegazio hauen agiri modura erantsi dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EUSKAL HERRIA BILDU-K AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

AZALTZEN DU

2012ko urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen Hauteskunde Kontabilitateen Irizpenaren Ondorioak jaso dituela eta ordezkatzeko duen Koalizioaren atalari dagokionez, zera

ADIERAZTEN DU:

12/270 zk. faktura, FHORMA, SLrena

Kit Araba3.913,15 euro
BEZ821,16 euro
GUZTIRA4.734,91 euro

Kit Araba erreferentzia

EZ DA SOINU MATERIALAREN EROSKETA, Arabako Lurralde Historikoan Hauteskunde kanpainan erabilitako megafonia alokairua baizik, izangaien botoa eskatzeko erabilitakoa.

Eta Hauteskunde propaganda modura barne har daitekeen gastua da, euskal Herriko Hauteskundearen Legearen 146. artikulua araberako.

20121165 zk. faktura, IZTrena

Informatika materiala alokatzea, 22.149,66 euroren zenbatekoan.

Hautagaien aldarrikapena egin osteko fakturaren data alde batera, ez da Koalizioak egindako material informatikoaren inongo erosketa, baizik eta Hauteskunde kanpainan zehar Koalizioaren funtzionamendurako baliatutako alokairua.

ESKATZEN DU

Adierazitako alderdiak 2012ko urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen Hauteskunde Kontabilitateari buruzko Irizpenari jarritako ALEGAZIO modura jasoak izan daitezela eta honenbestez, Hauteskunde Kanpainako DIRUZ LAGUNGARRI DIREN HAUTESKUNDE GASTUETAN barne hartuak.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

| | |
|-----------|--------------------------------------------------------------------|
| BOPV | Boletín Oficial del País Vasco |
| CAE | Comunidad Autónoma de Euskadi |
| JECA | Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco |
| JEC | Junta Electoral Central |
| LOREG | Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General |
| LEPV | Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco |
| TVCP/HKEE | Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia |



INTRODUCCIÓN

De acuerdo con el artículo 149.3 de la Ley 5/ 1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas debe emitir un dictamen motivado, sobre las contabilidades electorales y sobre la justificación de los ingresos y gastos en ellas incluidos.

El trabajo, de acuerdo con la normativa vigente, ha consistido en la verificación de las cuentas electorales de las formaciones políticas que obtuvieron escaños en las elecciones al Parlamento Vasco celebradas el 21 de octubre de 2012, o que solicitaron adelanto de la subvención electoral, en relación con los siguientes aspectos:

- 1.-**El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales.
